

Bazterkeriaren aurkako eragile

Ijito komunitateak ez ditu harriduraz hartu EAEko Gazteriaren Behatokiaren datuok: %41ek ez dituzte nahi bizilagun • Ijito «normalizatuen» errealitatea ezagutaraztea dute helburutzat

Arantxa Iraola Donostia

Jimenez dira denak deituraz, eta urrunagoko edo gertuagoko, denak senitarteko. Eta denak ijito: euskal ijitoak dira. Denak, halaber, hainbat taldetan lanean ari dira beren komunitatearen mendeetako bazterkeria gainditzen saiatzeko, eta «normalizazioren» bidean laguntzeko. Isabel Jimenez (Bilbo, 1971), Silvana Jimenez (Baiona, 1977), Pedro Jimenez (Gasteiz, 1964) eta Angel Jimenez (Donostia, 1974) dira. Ondoan Blanca Lobato (Gasteiz, 1978), Ijitoen Idazkaritzako koordinatzailea, ijitoa ez den bakarra. Berriki hedabideetan bolo-bolo ibili den datuari buruz mintzatzeko elkar-tu dira; izan ere, EAEko Gazteriaren Behatokiak argitaratu emandako datuen arabera, gazteen %41ek diote ez luketela nahi ijitorik bizilagun. Datuak nahigabea eragin die; ez, ordea, harridura apartekorik. Donostiako Elizbarrutiko Caritasen dihardu Isabelek, sendi ijitoekin, eta erreparoen itzala usu atzematen du «nagusi den komunitateko» biztanleen begietan, hitzetan, keinuetan: «Errealitate hori badugu. Samina da, baina hor dago. Ijitoen inguruko hainbat estereotipo badira gaindiezinak diruditenak».

Hor ikusten du arazoaren muina Blanca Lobatok ere: «Azken urte hauetan eboluzioa izan du ijitoen komunitateak, aurrera egin du; baina ez da hein berean aurreratu jendeak ijitoekiko duen ikuspegian, baztertzeko joera horrek bere horretan segitzen baitu». Isabelek uste du «ikusezina» direla gizartearentzat hainbat estereotipotatik at dauden ijitoak, eta horien errealitatea erakusten eta ezagutarazten egin behar dela aparteko indarra.

«Ijito anonimoak gara goizean goiz jaikitzen garenak, lan egiten dugunak, hipotekak ordaintzen ditugunak, eta nolabaiteko bizitza normalizatu daramagunak...», azaldu du. «Ijitoen erradiografia egitean usu jotzen da, ordea, babes gutxieneko testuinguruetan bizi diren horietara. Bereaiek agertzen dira argazkian. Baina bada lan egiten dugun ijitoen errealitate bat; ikasi egiten dugu, eta gure etorkizunaren eta elkarbizitzaren inguruko kezka



Jimenez sendiko kideak denak: aurrean, Angel; eta atzean, Silvana, Pedro eta Isabel. JUAN CARLOS RUIZ / ARGAZKI PRESS

dugu, eta horren alde ari gara lanean. Baina ez gaituzte ikusten. Eta zaratarik ere ez dugu egiten». Arranguraz mintzo da Isabel.

Bat dator Pedro: «Askotan, agertzen diren ijitoak gutxiengo baten isla dira». Baita Angel ere: «Lan egiten baduzu, zergak ordaintzen badituzte, eta umeak eskolara eramaten badituzte, askotan galdera egiten dizute: 'Baina zu ijitoa zara? Zu ez zara ijitoa'. Hemengotzat hartzen zaituzte». Ijitoen Idazkaritzan dihardu Angelek, bereziki hezkuntzaren eta trebakuntzaren inguruko egitasmoak sustatzen. Etorkizunerako Ijitoak elkartearen ari da Pedro, hainbat sendirekin, bitartekari.

Emandako mezuan sakontzen jarraitu nahi du Isabelek, ainguraturuta, usu ezkutuan dagoena ezagutarazteko ahaleginean; ijito komunitatearen barruan «aniz-

tasun» handia dagoela esplikatu nahi du lau haizeetara, «ez ezagutzea» dela talde osoarekiko mesfidantza ilunen kausa, eta zer ikasia ere badela haien borrokatik. «Balio handiak ditugun komunitate bat gara; jazarpen handia jasandakoak bagara ere, ez ditugu galdu», ohartarazi du. Uste du, gainera, balio horiek guztiak ez direla «gizartean nagusi den kulturarekin» bat egiteko galga: «Ez diogu ezeri uko egiten».

«Kultura nagusitik» edaten

Ez dira bakarrik sentitzen. Instituzioen lana nabarmendu du, esaterako, Silvanak. Romi Bidea elkartearen ari da bera; emakume ijitoen elkarte bat da, eta azkenaldian bereziki ari dira Urumea ibaiaren erriban bizitzen jarritako Errumaniako ijitoei laguntzen. «Instituzioak ari dira babes-

ten, ijitoen elkarteoi laguntzen, eta hortik datoz aldaketak; lan ona egiten ari direla uste dugu».

Urteotan, batez ere, hezkuntzan aurrera egin dutela uste dute. Diotenez, bizpahiru belau-nalditan, irauli egin da egoera. «Gaur egun, ia ez dago eskolara orain gurasoek umeen eskolatzaren alde egiten dute; andrazko ijitoen artean ere ahalduzte prozesu sendoa izaten ari da... Guk aurrerapausoak ikusten ditugu». Isabelek onartzen du, gizarteko beste hainbat sektoreekin alderatuz, «motelagoa» izan dela beren bidea, baina uste du egindako guztiari erreparatu behar zaiola. Eta gaur, milaka etxe ijitotan, gertatzen ari denari. «Orain hama-

bost urte, luzera jo gabe, absentismo handia zegoen. Gaur, lorpen bat da familiek eskolaren aldeko kontzientzia izatea».

Historia oraindik hurbila oroitzeak aurrerapenen kontzientzia argiagoa dakarrela uste du Pedrok ere: «Txabolismoa bazen orain hamabost urte inguru. Ijito askok, etxebizitza batera aldatu nahi zuten galdetuta, esaten zizu-



Ijito anonimoak gara goizean jaiki eta lan egiten dugunak, nolabaiteko bizitza normalizatu dugunak»

Isabel Jimenez
Ijitoa. Caritasen dihardu

«Balio dugula erakutsi behar dugu. Kostata datoz aldaketa asko, baina biktima jarrerak ez du deusetan laguntzen»

Silvana Jimenez
Ijitoa. Romi Bidea elkartearen dihardu

«Gure umeek ez diezaiotela utzi ijito izateari. Baina gizarteko parte dira, eta hezi behar ditugu horretarako»

Pedro Jimenez
Ijitoa. Etorkizunerako Ijitoen-en dihardu

«Lan egiten baduzu, zergak ordaintzen badituzte, galdera egiten dizute: 'Baina zu ijitoa zara? Zu ez zara ijitoa'»

Angel Jimenez
Ijitoa. Ijitoen Idazkaritzan dihardu

ten bikain zeudela han, beren kasa, eta, hartara, ez zutela argirik pagatu behar... Horrelakorik ez da egun». Lan kontuetan ere aldaketa badela dio Angelek: «Jendea trebakuntza eske dator, praktikak; nabarmentzekoa da gazteen jarrera, datuak onak dira».

Mendeetan jasandako «jazarpena» usu dute hizpide. Guztiek. Baina aurrera egiteko borondate irmoa. «Argi dago. Gakoa aurrera egitea da», azaldu du Silvanak. «Balio dugula erakutsi behar dugu, eta ahal dugula. Egia da kostata egiten ari direla hainbat aldaketa, baina biktima jarrerak ez du deusetan laguntzen».

Harro daude direnaz. «Herri bat gara», mintzo da Isabel. Komunitate horretan segi nahi dutela argi du Pedrok. «Gure umeek ez diezaiotela utzi ijito izateari. Baina gizarteko parte dira, eta hezi behar ditugu horretarako». Eta saihestu egin nahi dute *integro* hitza: «Integratu? Ez gauden kanpo. Hemen gaude».